

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

144/2026 Erabakia, martxoaren 10ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea NekazAraba aitortza sarien laugarren edizio (2026) saria emateari, Araban lehenengo sektoreko jardueraren balioa nabarmentzeko eta ikusarazteko

Araba lurralde historiko bat da kalitatezko elikagaiak ekoizten dituen nekazaritza eta abeltzaintzako tradizio handikoa, eta modu erabakigarrian laguntzen du garapen sozioekonomikoan, ingurumenaren kontserbazioan eta biztanleria eta landa kultura mantentzen. Arabako lehen sektoreak jakin du, urteek aurrera egin ahala, besteak beste Nekazaritzako Politika Bateratutik, merkatuen globalizaziotik eta kontsumitzaileen eskari berrietatik eratorritako erronka gero eta zorrotzagoei egokitu eta haiei aurre egiten.

Arabako Foru Aldundiak eta Nekazaritza Sailak, lehen sektoreak lurraldea egituratzeko, enplegua sortzeko eta kalitatezko ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko duen balio estrategikoaz jabetuta, ekarpen horri aitortza egin eta babes esplizitua eman nahi diote. Horretarako, komenigarritzat jotzen da aitortza bat sortzea, NekazAraba izenarekin, Arabako nekazariak, lurraldeko kolektiboak eta enpresek egunez egun egiten duten lanari garrantzia emateko eta hura ikusarazteko; izan ere, lan hori eragile garrantzitsua da Arabako landa munduaren eta tokiko erakundeen garapenerako.

NekazAraba aitortzen bidez, Arabako Foru Aldundiak bi urtez behin Arabako pertsonak, erakundeak edo produktuak nabarmendu nahi ditu. Aitortza horiek bost kategoriatan banatzen dira: Berrikuntza, Elikagaien Bikaintasuna, Belaunaldi Erreleboa, Landa Garapena eta Lanbide Ibilbidearen aitortza.

Laugarren edizio honetan, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak erabaki du hauexei ematea Nekazaraba 2026 aitortza sariak:

- Berrikuntzaren kategorian, Hurban Hydroponics SL sozietateari.
- Elikagaien Bikaintasunaren kategorian, María Carmen Bargaño Alonsori.
- Belaunaldi Erreleboaren kategorian, Loyola Martínez de Cañas Pagolari.
- Landa Garapenaren kategorian, Jesús María Frías Ugarteri.
- Lanbide Ibilbidearen aitortzaren kategorian, Javier Aizpeolea Oyarbideri.

2026ko martxoaren 28an, Arabako Foru Aldundiak aitortza sari horiek banatuko ditu, Zigoitiko zentro gizarte eta kultura zentroan (Ondategi) horretarako egingo den ekitaldi batean.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea NekazArabaren laugarren edizioko (2026) aitortza sariak ematea Arabako lehen sektorearen jardueraren balioa nabarmentzeko eta ikusarazteko, Hurban Hydroponics SLri, María Carmen Bargaño Alonsori, Loyola Martínez de Cañas Pagolari, Jesús María Frías Ugarteri eta Javier Aizpeolea Oyarbideri, euren lanbide ibilbideagatik eta Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta landa garapenari berrikuntza eta bikaintasunaren ikuspegitik egindako ekarpen konprometituagatik.

Bigarrenena. Zigoitiko gizarte eta kultura zentroan (Ondategi) emango da aitortza saria, 2026ko martxoaren 28an, horretarako berariaz deitutako ekitaldian.

Hirugarrena. Aitortza sari hori eman izana Arabako Foru Aldundiaren protokolo eta harreman publikoen ardura duen zerbitzuari atxikitako ohore eta goraipamenen erregistroan inskribatzea, dagokion atalean.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA